ELA EUSKAL SINDIKATUA

# LAS TRABAJADORAS DE LIMPIEZA... ...¡EN LUCHA!

**Ese es el único camino para mejorar nuestras condiciones laborales**

## ORGANIZARNOS EN LAS EMPRESAS ES LA ÚNICA ALTERNATIVA

El pasado 19 de octubre LAB nos convocó a una reunión a los sindicatos y patronales con representación en el sector de la limpieza. El objetivo de esta reunión era tratar de negociar un Acuerdo Marco Sectorial para el sector de la limpieza que impida negociar condiciones de trabajo en las empresas.

**¿Qué dijo la Patronal ante su propuesta?** En primer lugar, ha manifestado en público y en privado su satisfacción con la Reforma de Rajoy porque le da la posibilidad de empeorar las condiciones de trabajo, para eso la han hecho. La Patronal dice que no quiere un acuerdo que impida negociar en las empresas, pero añade que además con la ley actual, cualquier acuerdo que establezca esa imposibilidad sería nulo por ir contra la ley. Le dice a LAB que se lea la Reforma.

**¿Qué dice la Ley tras la Reforma de Rajoy?** Rajoy ha modificado el art. 84 del Estatuto de los Trabajadores que establecía la primacía del convenio provincial sobre otros y que impedía negociar en las empresas condiciones inferiores al provincial. Ahora la ley de Rajoy otorga el mayor rango a lo que se negocie en la empresa en materias como  salario, distribución de jornada, modalidades de contratación, horas extras, medidas de conciliación y otras que se puedan añadir. Dice, además, que sobre esas materias ningún acuerdo interprofesional, acuerdo marco o convenio podrá impedir que en la empresa se pueda negociar y que, de negociarse, ese acuerdo sería nulo y no se aplicaría. La Audiencia Nacional ya ha dictado sentencia para consolidar esta posición.

Siendo esto así, el planteamiento de LAB, nos puede llevar a dos conclusiones:

**a.-** o desconocen la Reforma de Rajoy contra la que hicimos una huelga general diciendo que se cargaba la negociación colectiva.

**b.-** o han decidido no decir la verdad sobre esa reforma para trasladar a los y las trabajadores del sector una alternativa que es imposible.

CCOO y UGT, por su parte, dijeron que no van a renunciar a ningún ámbito de negociación. Ellos, por medio de los convenios estatales, continúan quitando importantes materias a los convenios provinciales  para que no podamos negociar aquí.

ELA ha defendido siempre los convenios provinciales de la limpieza. Lo que sucede ahora –y sería una irresponsabilidad ocultarlo– es que Rajoy ha querido que los convenios provinciales dejen de ser convenios para que pasen a ser meras recomendaciones que las empresas no tienen porqué cumplir. ¿Por qué niega LAB lo que es evidente para todo el mundo? Desconocer esa realidad nos llevaría a no prepararnos para un futuro en el que va a ser esencial contar con fuerza sindical en cada empresa y centro de trabajo para defender nuestras condiciones.

**ELA insiste en que tenemos que organizarnos en las empresas y centros de trabajo para defender nuestras condiciones.** Esa va a ser la única garantía para un blindaje eficaz,  para poder defendernos. Es la ley la que envía a las empresas la negociación de materias esenciales. Es incomprensible, para ELA, que leída esta Reforma, LAB plantee fórmulas que no tienen validez legal.







EUSKAL SINDIKATUA

# Afiliazio orria
## Hoja de afiliación

www.ela-sindikatua.org

**Izena:** ____________________
Nombre

**1.abizena:** ____________________
1º apellido

**2.abizena:** ____________________
2º apellido

**Jaioteguna:** ____________________
Fecha nacimiento

**Jaiotze herrialdea:** ____________________
Lugar de nacimiento

**Helbidea:** ____________________
Dirección

**Herria:** ____________________
Localidad

**Herrialdea:** ____________________ **P.K:** ____________________
Provincia C.P.

**Telefonoa** ____________________ **Mugikorra:** ____________________
Teléfono Móvil

**E-posta:** ____________________
E-mail

**NAN/EIZ:** ____________________
DNI/NIE

**Emakumezkoa** / Mujer ☐
**Gizonezkoa** / Hombre ☐

**Lantokia:** ____________________
Empresa

**Enpresaren G.S.ko zenbakia:** Nº Seg. Social de la empresa
____________________

**Helbidea:** ____________________
Domicilio

**Herria:** ____________________
Localidad

**Lanbidea:** ____________________
Profesión

**Kategoria** ____________________
Categoría

**Lan-hitzarmena** ____________________
Convenio

____________________

**Banku edo Aurrezki Kutxa:** ____________________
Banco o Caja de Ahorros

**Kontuko zenbakia (20 digitu):** ____________________
Nº de cuenta (20 dígitos)

**Data** / Fecha

**Sinadura** / Firma

Sindikatuak betetzeko / A rellenar por el sindicato →

**Kuota mota:**
Tipo de cuota

**Arduraduna:**
Responsable

**Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuan izena ematen duenak badaki, eta onartu egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuetan jasotzen direla; datuak artxibo horietan era konfidentzialean jasota geratuko dira.**
**Datu horiek indarrean diren arauak aintzat hartuz landu eta babestuko dira, eta bere titularrak eskubidea izango du Sindikatuaren aurrean, datuetara iritsi, horiek zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko.**

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial.
Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición ante este Sindicato.

www.ela-sindikatua.org

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# GARBIKETAREN SEKTOREKO LANGILEAK... ...BORROKAN!

**Hori da gure lan baldintzak hobetzeko dugun tresnarik eraginkorrena**

## ENPRESETAN ANTOLATZEA DA ALTERNATIBA BAKARRA

Joan den urriaren 19an LABek bilera batera deitu gintuen garbitasun sektoreko sindikatuak eta patronalak. Bileraren helburua, garbitasunerako Sektoreko Marko-Akordio bat negoziatzen hastea, zeinaren ondorioz ezinezkoa litzateke enpresetan lan-baldintzak negoziatzea.

**Zer esan zuen patronalak proposamen honi buruz**? Hasteko, esan beharra dago jendaurrean eta esparru pribatuetan adierazi duela Rajoyren erreformarekin oso pozik dagoela, lan-baldintzak okertzeko aukera ematen baitio; hauxe zen erreformaren xedea. Patronalak dioenez, ez du ezer hitzartu nahi enpresetan negoziatzea galarazte aldera, baina gainera esaten du egungo legearen baitan era horretako edozein akordio baliorik gabea litzatekeela, legearen aurkakoa litzatekeelako. Patronalak LABi eskatzen dio erreforma irakur dezala.

**Zer dio legeak Rajoyren erreforma ostean?** Langileen Estatutuko 84. artikulua aldatu dute. Artikulu honek lehentasuna ematen zion hitzarmen probintzialari, eta enpresetan baldintza okerragoak negoziatzea galarazten zuen. Orain idatzita dagoen moduan Rajoyren legeak lehentasun osoa enpresan negoziatzen denari ematen dio hainbat gaitan: soldata, lanaldiaren banaketa, kontratatzeko moduak, aparteko orduak, kontziliatzeko neurriak eta gehi daitezkeen beste batzuk. Gainera, gai hauei buruz inongo lanbidearteko akordio, marko-akordio edo hitzarmenek ezin izango du galarazi enpresan negoziatzerik; ezer hitzartuz gero, baliogabea litzateke eta ez litzateke aplikatuko. Hain zuzen, Auzitegi Nazionalak dagoeneko puntu hau finkatzeko epaia eman du.

Beraz, LABen jokabideak bi zergati izan ditzake

**a.-** Lehena, Rajoyren erreforma ez dute ezagutzen, zeinaren kontra greba orokorra egin baikenuen negoziazio kolektiboa deuseztatzen zuelako.

**b.-** Bigarrena, erreformari buruzko egia ez esatea erabaki dute, sektoreko langileei ezinezko alternatiba bat saltzearren.

CCOOek eta UGTk, berriz, esan zuten ez dutela negoziazio esparrurik baztertuko. Estatu mailako hitzarmenekin probintzialetan garrantzi handiko gaiak negoziatzeko aukera kentzen digute.

ELAk betidanik egin izan du garbitasuneko hitzarmen probintzialen alde. Baina orain –arduragabekeria litzateke ezkutatzea– Rajoyk erreformarekin erabaki du hitzarmen probintzialak gomendio huts izango direla, enpresek derrigor bete behar ez dituztenak. Zergatik ukatzen du LABek edonorentzat begibistakoa dena? Errealitate honi jaramonik egiten ez badiogu, ez gara prestatuko etorkizunerako: enpresa eta lantoki bakoitzean indar sindikala ezinbestekoa izango da gure baldintzei eutsi ahal izateko.

**ELAk berriro nabarmendu behar du enpresetan eta lantokietan antolatu beharra daukagula, gure interesen alde egiteko.** Hori izango da blindajea izateko berme bakarra, defenditzeko bide bakarra. Legeak eragingo du funtsezko gaiak enpresa mailan negoziatzera. ELArentzat ezin da ulertu erreforma hau irakurrita LABek balio legalik gabeko formulak proposatzea.







EUSKAL SINDIKATUA

# Afiliazio orria
## Hoja de afiliación

www.ela-sindikatua.org

**Izena:** Nombre ______________________

**1.abizena:** 1º apellido ______________________

**2.abizena:** 2º apellido ______________________

**Jaioteguna:** Fecha nacimiento ______________________

**Jaiotza herrialdea:** Lugar de nacimiento ______________________

**Helbidea:** Dirección ______________________

**Herria:** Localidad ______________________

**Herrialdea:** Provincia ____________ **P.K:** C.P ____________

**Telefonoa** Teléfono ____________ **Mugikorra:** Móvil ____________

**E-posta:** E-mail ______________________

**NAN/EIZ:** DNI/ NIE ______________________

**Emakumezkoa / Mujer** ☐

**Gizonezkoa / Hombre** ☐

**Lantokia:** Empresa ______________________

**Enpresaren G.S.ko zenbakia:** Nº Seg. Social de la empresa ______________________

______________________

**Helbidea:** Domicilio ______________________

**Herria:** Localidad ______________________

**Lanbidea:** Profesión ______________________

**Kategoria** Categoría ______________________

**Lan-hitzarmena** Convenio ______________________

______________________

**Banku edo Aurrezki Kutxa:** Banco o Caja de Ahorros ______________________

**Kontuko zenbakia (20 digitu):** Nº de cuenta (20 dígitos) ______________________

**Data / Fecha** **Sinadura / Firma**

Sindikatuak betetzeko / A rellenar por el sindicato → **Kuota mota:** Tipo de cuota **Arduraduna:** Responsable

**Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuan izena ematen duenak badaki, eta onartu egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuetan jasotzen direla; datuak artxibo horietan era konfidentzialean jasota geratuko dira. Datu horiek indarrean diren arauak aintzat hartuz landu eta babestuko dira, eta bere titularrak eskubidea izango du Sindikatuaren aurrean, datuetara iritsi, horiek zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko.**

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial.
Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición ante este Sindicato.